


Bi idazlan egin behar dituzu eta denera 300-350 bat hitz idatzi behar dituzu.

1. ESKUTITZA (150 hitz)

A)

Dagoeneko milaka lagunek eguneroko prentsa euskaraz irakurtzea aukeratu dute



eta zuk?

(Berriaren
publizitatea)

Bartzelonan *Berria* egunkaria ezin denez erosi, duela hilabete harpidedun egitea erabaki zenuen egunero-egunero etxean jasotzeko. Euskal Herritik kanpo egunkariaren banaketa posta bidez egiten da eta zuri egunkariak astean behin ari zaizkizu iristen, astebeteko atzerapenarekin eta aldiko sei ale.

Hilabete honetako esperientzia penagarria izan da zuretzat.

Idatziozu eskutitza *Berriako* zuzendariari gertatutakoa azaltzeko eta zure haserrea adierazteko.

2. IRITZIA EMATEN (200 hitz)

A)

Prensa arrosa: Non dago muga?



(*Sálvame* saioko partaideak)

Futbol partidekin batera prentsa arrosari buruzko programak omen dira audientzia handienak dituztenak. Itxarongela guztietan topa daiteke “bihotzeko aldizkari” horietakoren bat.

- Nolako gizartea, halako prentsa?
- Intimitate-eskubidea. Bideo-kamerak nonahi. Non dago muga?
- Entretenimendu hutseko programak, ideologiarik gabekoak, existitzen al dira?
- Kataluniako / Euskal Herriko prentsa arrosarik?